

KIROL TEKNIFIKAZIOARI BURUZKO IKASTARO OFIZIALAK EGITEKO NESKENTZAKO BEKEN DEIALDIAREN OINARRIAK

2021-2022

1. Adin nagusikoa izan.
2. Arabarra izatea edo Araban erroldatua egotea duela hiru urtetik.
3. Beka-eskaera betetzea 2021eko azaroaren 30etik 2022ko martxoa arte.
4. Araban erroldatua ez badago: gaur egun monitore, kirol entrenatzaile edo Arabako klub, elkarte edo kirol eskola bateko kirolari federazio-lizentzia izatea; eginkizun hori bertako klub, elkarte edo eskoletan gutxienez hiru denboralditan bete izanaz gain.
5. Behin ikastaroa eginda, edo ikastaroa egin bitartean, bekaren eskatzaileak praktikak egingo ditu egin duen ikastaroko kirol-talde edo klub batean, eta kirol-kluba berak aukeratu ahal izango du.
6. Arabako futbol federazioak exijitutako gutxienerako klase-kopurura joateko konpromisoa hartzea eta praktikak burutzea.
7. Beka onartzearekin batera, bekadun pertsonak baimena emango dio dagokion federazioari ikastaroan izan duen parte hartzearen jarraipena helarazi diezaion Vital Fundazioari.
8. Eskatzaileek aurreratu egin beharko dute ikastaroaren prezioa eta itzuli egingo zaie praktikakamaitzean, beti ere Vital Fundazioak egindako jarraipen txostena aldekoa bada.
9. Kutxabanken kontu baten titularra izatea.
10. Eskatzaileek, adin nagusikoak, egunean izan beharko dituzte Administrazio Publikoarekiko eta Seguritate Sozialarekiko zerga betebeharren ordainketak.
11. Behin ikastaroa eginda, Fundazioak eskatzen dizkien agiri eta egiaztagiri batzuk aurkeztu beharko dituzte, bai eta ikastaroaren memoria eta praktikak egin dituzten klubetan praktikak egin izanaren justifikazioa ere.
12. Sexu-delituen ziurtagiria behar bezala edukitzea.
13. Aurretiaz zehaztutako konpromisoak bete ezean, eskatzaileak ez du jasoko Vital Fundazioak eskainitako laguntza-poltsa.